

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezere berriak sare sozialen bitartez erakarriko ditugu gehien bat, lehen esan dugun bezala gure **tik tok eta instagrameko** kontuekin, gainera gure ikasleek beraien sare sozialetan beraien progresioaren bidioak eta testimonioak igoko dituzte, beraz haien ezagunak gure kurtsoan sartzeko aukera handia dago. Jakina, bezeroak mantenduko ditugu benetako progresioa ikusiko dutelako eta gehiago hobetzen jarraitu nahiko dutelako.

Gainera, prozesuaren edozein momentutan ez badute aldaketarik edo kurtsoa ez duela ezertarako balio sentitzen, gurekin hitz egiteko chat bat egongo da. Beraz edozein arazo balego, gurekin hitz egiteko eta arazoa zein den komentatzeko baliabideak izango dituzte. Arazoren bat balego eta guri idatziko baligute kontuan hartuko dugu eta prozesua hobetzen saiatzeko hartuko dugu informazio hori. Harreman pertsonala izango dugu bezeroengan, hau da, guk hitz egingo dugu bezeroekin eta guk izango dugu hauekin harremana makina edo robot batek automatikoki erantzun beharrean.